

2008-12-16ko EZOHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta zortzigarren urteko abenduaren hamaseian, arratsaldeko 20:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohizko batzarra egin du Udalbatzak, Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Eugenio Loidi jauna, Jose Luis Olano Zubeldia jauna, Agustin Zubeldia Iraola jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: M^a Jesús Otaño Zumeta, Gregorio Lasa Etxezarreta eta Aitor Lasa Olalde jaun/andreak.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENBIZIKO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (08/10/21; 08/10/28).

2008ko urriaren hogeita bateko eta 2008ko urriaren hogeita zortziko ezohizko saioen aktaren zirriborroak ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hauek onartzea.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

-2008-10-09ko 134/08 Dekretua: udal baimena ematea ibilgailua garajera sartzeko G. Ameztoy, 3an.

-2008-10-15ko 135/08 dekretua: Kale Nagusia 22-an igogailua jartzeko baimena.

-2008-10-20ko 136/08 dekretua Aitziber Pinheiro gizarte-dinamizatzaileran lanetarako kontratatzea.

-2008-10-23ko 137/08 dekretua: France Zirkoak urriaren 24an herrian saio bat

egiteko baimena.

-2008-10-23ko 138/08 dekretua: 2008ko jaiei dagozkion fakturen zerrenda onartzea.

-2008-10-24ko 139/08 dekretua: iraileko fakturen zerrenda onartzea.

-2008-10-24ko 140/08 dekretua: 26-E-ri etxez-etxeko laguntza zerbitzua onartzea.

-2008-10-24ko 141/08 dekretua: 167-E-ri etxez etxeko laguntza zerbitzua onartzea.

-2008-10-29ko 142/08 dekretua: udal langileak 3. hizkuntza eskakizuna lortzeko matrikula gastua ordaintzea.

-2008-10-29ko 143/08 dekretua: udal langileak 1. hizkuntza eskakizuna lortzeko matrikula gastua ordaintzea.

-2008-10-30ko 144/08 dekretua: administrari lanpostu bat betetzeko izangai onartuen eta ezonartuen behin behinekoa zerrenda onestea.

-2008-11-10eko 145/08 dekretua: Naturgasei 156,03€ likidatzea 2008ko 3. hiruilekoan eraabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu bereziagatik.

-2008-11-10eko 146/08 dekretua: Naturgasei 2.304,79€ likidatzea 2008ko 3. hiruilekoan eraabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu bereziagatik.

-2008-11-11ko 147/08 dekretua: udako euskarazko ikastaroetara joateagatik diru-laguntza onartzea.

-2008-11-13ko 148/08 dekretua: Fresneda E.M.-ri esleitzea behin betiko udal fontoiaren ingurunea berrurbanizatzeko lan egiteko (1. fasea).

-2008-11-14ko 149/08 dekretua: kale nagusia 16an leihoak aldatzeko baimena.

-2008-11-17ko 150/08 dekretua: trakzio mekanikozko ibilgailuen Gaineko zerga ordaintzetik salbuestea, 5824-GHX matrikula duen ibilgailua.

-2008-11-18ko 151/08 dekretua: urriko fakturen zerrenda onartzea.

-2008-11-21eko 152/08 dekretua: zerbitzu arduraduna lanpostu bat betetzeko izangai onartuen eta ezonartuen behin behinekoa zerrenda onestea.

--2008-11-27ko 153/08 dekretua: Euskal Forging S.A.-ri "Pabiloiaren luzera handitzea, 2. fasea eta estalia dagoen zonaldea legalizatzea" proiektuari eskatutako baimena ematea.

-2008-11-28ko 154/08 dekretua: Osasun zentroko erreformaren 7.375,79€ko

faktura onartzea.

-2008-11-14ko 155/08 dekretua: K/ Nagusia 1-1. A etxebizitzan obrak egiteko baimena ematea.

-2008-12-04ko 156/08 dekretua: Cristina Fernández izendatzea udal honetako plantillako administrazio orokorreko administrari plazan karrerako funtzionaria.

-2008-12-04ko 157/08 dekretua: 2008ko azaroaren 27an ospatutako oposaketa epaimaikideei ordainketa egitea.

-2008-12-09ko 158/08 dekretua: gizarte larrialdiko laguntzak onartzea.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, UDAL HONEN 2008KO AURREKONTUAREN BIGARRENGO KREDITUEN ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Alkateak aurkeztu du 2008 Ekitaldiko Aurrekontu Orokorraren 2. kreditu aldaketarako espedientea.

Idazkari-kontuhartzailearen txostena aztertu ondoren, udalbatzak ondorengo erabakiak hartu ditu:

Lehenengoa: hasierako onarpena ematea 2008 Ekitaldiko Aurrekontu Orokorraren bigarren kreditu-aldaketarako espedienteari:

Atala	Kontzeptua	Aurren. Kons	Aldaketa	Azken Kons.
6.	622.45	170.000€.	-70.000€	100.000€
	(Erais. K-Kir.			
	625.12	4.200€	+8.000€	12.200€
	AltzariakA.O.			
	625.43	5.400€	+5.400€	10.800€
		Guztira:	-56.600€	

Bigarrena.- Indarrean dagoen legediak xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendaurrean erakusgai jarri eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatzea, espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako

Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

LAUGARREN GAIA

HASERAKO ONARPENA BADAGOKIO, UDAL TASA ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.

Gaia hau ikusita mahi gainean uzten da ikertzeko

BOSGARREN GAIA

EUSKAL TOKI-ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIO ETA LANGILEEN BALDINTZAK ARAUTZEN DITUZTEN UDALHITZ 2008-2010 AKORDIOETARA ATXIKITZEA, HALA BADAGOKIO.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan, EUDEL, tokiko erakundeen ordezkaria eta sindikatu esanguratsuenen artean lan-hitzarmenen ibilbide luzea dago. Euskadiko Herri eta Foru Administrazioako Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Hitzarmenarekin (ARCEPAFE) hasi ziren, eta 2006ko martxoko Udalhitz Akordioekin jarraitu zuten. Horiei esker, lan baldintza aurreratuen marko bat egituratu da eta Euskadiko Lurralde Erakundeen eraginkortasuna, kalitatea eta herritarrei zerbitzua emateko izpiritua asko garatu da.

Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, 34. artikuluan, Euskadiko udal-erakunde guztientzako lan-harremanen marko bateratua finkatzea ahalbideratzen du, berariaz aitortzen baitie EUDEL bezalako udalerrien elkarteei, negoziazio-prozesuetan toki mailako erakundeen ordezkariak bere gain hartzeko aukera.

Horrela, EUDELEk sindikatuen bitartekarietako negoziazioen ardurak hartu izana Udalen eta tokiko beste erakundeen izenean, posible egiten da. Beraz, akordioak eta sektoreko hitzarmenak formalizatuko ditu, erakunde bakoitzean berehala ezartzeko, horietara atxikita eta bestelako izapiderik egin gabe. Horrek izugarri sinpletzen du negoziazioen dinamika eta era berean, erakunde guztien arteko lan-baldintzak homogeneizatzen dira.

Hori guztia oso onuragarria da bertaratutako alderdi guztientzat.

Irailaren 22an Udalhitz 2008-2010 akordioak sinatu dira honakoen artean: EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea, eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatuak. Akordio horien bidez, euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dira eta udaletara igorri dira, dagozkion atxikipenak gauzatu daitezzen.

Bestalde, aipatu artikuluen 8. artikuluan aipatzen denez, baldintza jakin batzuk erakunde edota pertsonen eremuan mantendu ahalko dira, baldin eta akordioa gainditzen badute, eta aurretiaz aitortutakoak badira.

Ikusirik Idazkari-kontuhartzaitzaren txostena.

Aurreko hori guztia kontuan, ahobatez korporazioak ondorengo erabaki du:

LEHENENGO.- Euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dituzten Udalhitz 2008-2010 akordioetara atxikitzea. Akordio horiek 2008ko irailaren 22an sinatu ziren EUDEL- Euskadiko Udalen Elkartearen eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatueta ordezkarien artean.

BIGARREN.- Aurretiaz Irurako Udaleko 2004ko uztailaren 28ko eta 2004ko irailaren 21eko eta 2006ko irailaren 27ko Udalbatzek onartutako baldintza onuragarriagoak mantentzea.

HIRUGARREN.- Akordio hauek jakinaraztea EUDELi, Langileen Batzordeari, Enpresako Batzordeari, Sindikatu Atalei eta Udalean akreditazioa duten sindikatu guztiei.

SEIGARREN GAIA

APAIZ ETXEKO LOKALEN ALOKERAREN KONTRATUA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.

2003ko ekainaren 13an udal honek Irurako San Migel Parrokiarekin Apaiz Etxeak dauzkan lokal batzuk alokatzeko hitzarmena sinatu zuen. Bost urterako izan zen hitzarmen hori, eta epea amaitu da, baina beste bost urterako sinatzeko aukera ematen du.

Udalaren zerbitzuen beharrak betetze arren, bi aldeek kontratu hori luzatzeko adostasuna lortu dute.

Hori ikusita udalbatzak aho batez onartzen du:

Lehena.- Hitzarmen hori bost urtez luzatzea baldintza berdinetan.

Bigarrena.- Alkateari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

ZAZPIGARREN GAIA

2 URTEKO GELA DIRUZ LAGUNTZEKO IRURAKO

IKASTOLAREKIN HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2008ko urriaren 22ko sarrera data eta 1771 zenbakiarekin, Sorkunde Irazuk, Irurako Ikastolaren izenean, bi urteko gelarako diru-laguntza eskatuz. Hori dela eta hitzarmen bat sinatuko da Irurako Ikastolarekin.

Hori ikusita udalbatzak aho batez onartzen du:

Lehena.- Aipatutako 2008/2009 ikasturterako hitzarmena ontzat ematea eta arauen arabera eta Marimi Ugalde Zabalari, Irurako udaleko alkate-lehendakari andreari, Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Bigarrena.- Diru kopurua jaso aurretik, Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Nortasunaren egiaztagiria

b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko du(t)en ziurtagiria(k).

d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

ZORTZIGARREN GAIA
ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO
BALDINTZEN PLEGUAK ONARTZEA ETA PROZEDURAREN
HASIERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Etkez-etxeko zerbitzua eskaintzen du udal honek eta kontratu baten bidez eskaintzen du, ez zuzenean, kudeaketaren bidez. Orain dagoen kontratua bukatutzat eman da eta berriz kontratatzeke espedientea hasi beharko da.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez onartzen du:

Lehena.- Etkez-etxeko zerbitzua kontratatzea, zerbitzuen kontratu baten bidez.

Bigarrena.- Baldintza ekonomiko-administratiboko plegu partikularrak eta baldintza tekniko pleguak ere onartzea.

Hirugarrena.- Kontratuaren gastua onartzea.

Laugarrena.- Kontratatzeke prozedura hastea.

BEDERATZIGARREN GAIA
EUSKAL FONDOAREN LAGUNTZA ALDAKETA ONARTZEA,
HALA BADAGOKIO.-

2008ko ekainaren, 6an udalbatzak onartu zuen 2008ko laguntza Euskal Fondoari, Nicaraguako San Carlos Hirigintza garapenari zuzenduta.

Orain Euskal Fondoak jakinarazi du laguntza hori beteta dagoela eta horregatik bere orde bestelagunari eman behar dela.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez onartzen du:

2000€ko laguntza "Garraio.Azpiegitura Saharraren kanpamenduetan, Tinduf (Aljeria). RASD-ra bideratzea.

HAMARGARREN GAIA
IRURAKO UDALAREN IV. PLANGINTZALDIRAKO UDAL

BARRUKO EUSKARAREN ERABILERA PLANA (2008-2012)

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Irurako udalaren IV. Plangintzaldirako udal barruko euskararen erabilera plana (2008-2012) udaleko zerbitzuek prestatuta aurkeztu da.

Hori ikusita eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren txostena ikusita, eta aho batez, udalbatzak plan hori onartzea erabaki du.

HAMAIKAGARREN GAIA

“GIZAKIA HELBURU”-REN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.-

Gizakia Helburu eta Norbera programak sustatzeko Izan Fundazioak diru-laguntza eskaera aurkeztu du.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez 100€-ko diru-laguntza ematea eta ordaintzea onartu du.

HAMABIGARREN GAIA

2007ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAN GELDITZEN

DIREN KREDITUAK EZABATZEA, HALA BADAGOKIO.

2007ko aurrekontuaren likidazioan gelditzen diren kredituei baja emateko aukera dago.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez kreditu hauek ezabatzea onartu du:

<u>GASTUAK</u>			
<u>PARTIDA</u>	<u>KONTZEPTUA</u>	<u>KOPURUA</u>	<u>ZERGATIA</u>
421.440.2005	T. Garatzen. Paper Esk. Berri.	3.094,63 ...	akatsa
622.450.2007	Besteak. Gazte ekip.	21.963,28	“
781.450.2007	Irurako Ikastola. Laguntza	12.500,00	“
<u>SARRERAK</u>			
<u>PARTIDA</u>	<u>KONTZEPTUA</u>	<u>KOPURUA</u>	<u>ZERGATIA</u>
310.01.2004	Zabor bilketa		472,18

Preskripzioa.

HAMAHIRUGARREN GAIA

2009ko UDAL LANGILEEN EGUTEGIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udalbatzak aho batez erabaki du 2009 urteko lan egutegi orokorra onartzea. Egutegiak oinarri hauek ditu:

- Presentzia efektiboko lanaldia urtean: 1.592 ordu.
- Lanaldi orokorra: astean 35 ordu, astelehenetik ostiralera; 7 ordu egunean.
- Ez da zubirik egongo.
- Oporrak: 24 lanegun, astelehenetik ostiralera.
- 14 jaiegun, estatukoak, autonomikoak eta herrikoak.

Era berean, udaleko sail bakoitzeko lan egutegia onartzea erabaki du, betiere egutegi orokorra betetzeko baldintzapean.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 21:00etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.